



MUSIKA

Arratoiak akatuko du labezomorro beltza



DANI METALCRY

Rat-Zinger Bilboko Kafe Antzokian.

IKER BARANDIARAN

Faxistak labezomorro beltzak bezalakoak dira; jaio, hazi eta biderkatu egiten dira gaizkia eta gehiegikeria nonahi zabalduz, baina azkenean hil egiten dira. Arratoiak, aldiz, indartu egiten dira gosean, hondakinean eta miserian; ezin ditu ezerk ez inork geldiarazi.

Faxismoa haziz doa, lotsagabe, eta kaleak hartu nahi ditu lehenbailehen. Polizia eta sistema alde ditu eta eskuin-muturraren presentzia normalizatze-ko ahalegin sutsuan dihardute. Aldi berean, ezkerre desorientatuta dago eta ipar gabe aspalditik; eta, horren guztia-
ren aurrean, jendea, herritarak, esperantza eta ilusio gabe. Testuinguru latz horretan egiten dute aurrera arratoiak, ezer ez eta guztia galtzeko izan arren, salbamendurik ezean erailtzen hilko di-

renak. Dagoeneko bi aita santu akabatu dituzte, eta faxismoren ikono ustela hilotzik atera dute. Ez da gutxi!

Hala, Erromako aita santuaren sasi-kumeek egurra ematen jarraitzen dute, kapitalari ahalik eta min handiena eragiten. Hamar urte dira estoldatetik atera zirela eta haginka are eta amorru handiagorekin egiten dutela ospatzeko, *No habrá piedad para nadie* bigarren bilduma kaleratu dute.

CDak lau abesti berri dakartza: *Soy un malnacido* autobiografikoa, zeinetan Eskandinaviako ezkerreko gitarra, hardcore-punka eta thrash ukituak batu dituzten; punk-rock azkarreko *Polvo* irmoa; egurra jasotzen duen *Días de comisaría*, tentsio handiko Motörheaden trazako pieza; eta bere onetik ateratako



NO HABRÁ PIEDAD PARA NADIE

RAT-ZINGER

VOL. 2. AUTOEKOIZPENA

Aullo al sol, abiadura handiko hard-rock kaletarra.

Gainera, *Rock'n'Roll para hijos de perra* diskotik deskartatutakoak ere badi-
ra: *Plumas y alquitrán*, hardcore-punk eta punk-rock gitarrero zikin eta biderkatua; eta *Cuando venga a por mi* kaleko rock balada sinesgarri eta gordina, hain zuzen ere.

Horrez gain, *Larga vida al infierno* diskoko *Uno de los nuestros* eta *Larga vida al infierno* berriro grabatu dituzte; eta beraien beste klasiko batzuk ere batu dituzte.

Bilboko talde apokaliptikoak ez du inoiz arnasa hartzeko geldiunerik egiten eta azaro honetan zuzeneko diskoaren grabaketa egin du Bilboko Kafe Antzokian. ●